

“ ”

Pelikula arrakasta pertsonalaren bilaketa da, eta Norak esanahi berria ematen dio arrakasta horri”

Lara Izagirre

2020ko Donostiako Zinemaldian estreinatu bazen ere, aurtengo irailean heldu da *Nora* filma zinema aretoetara. Lara Izagirre (Zornotza, 1985) zuzendariak *road trip* ez hain utopikoaren bidez hezurmamitu duen bilaketa pertsonalaren istorioa da, familia baten kontakizuna, generoaren inguruko gogoeta eta denok biltzen gaituen “euskal lurraldean” galtzeko bidaia. Metafora jokoez aparte, pelikulak zeresana sortu du; Euskal Herrian eta euskaraz egin den arren, hainbat euskal aretotan gazteleraz proiektatu delako.

IRATIZ MADARIAGA ETXEBARRIA IRATXE ETXEANDIA

Hiltzea ez da modu tragikoan ulertzen pelikulan, hasiera da; askotan, euskal kulturaren egin ohi dugunaren aurka.

Kontrapuntu hori bilatzen zenuen?

Bizitzaren oinarrietako bat da gauzei nondik begiratzen diegun. Bizitzaren parte da heriotza, bizi osoan zehar izango dugu hurbil: batzuetan hurbilago, beste batzuetan ez hainbeste. Baina beti egongo da presente. Orduan, bada proposamen bat heriotzari bizitzatik begiratzeko: nola bizi hiltzen gabiltzan bitartean, nola bizi gertuko norbait hil denean. Uste dut badagoela jendea horrela bizi dena, ez heriotzarekin borrokan, baizik eta onartuz: “Gertatuko da, eta nondik biziko naiz hori gertatzen denean?”. Pelikulan, pertsonaia bakoitzak bere ikuspegia dauka. Heriotzak sor dezakeen alde ilunean sartu beharrean, argitasuna ikusten du Norak, eta omenaldia egiten du: besteen gaitik bizitzea haiek ez daudenean.

Familia traba da Norarentzat bere bidea hasteko. Bereak ez diren

erantzukizunak baino ez dizkiote ematen. Zergatik bueltatzen da familiarengana?

Nora, pelikularen hasieran, besteentzako bizi da. Aitonak pisu handia dauka, eta zaintza lan handia ere badago: lan hori eta familiarekiko lotura irudikatu nahi nuen. Niretzako gauzak ez dira ez beltzak, ez zuriak; konplexuagoak dira. Horregatik, batzuetan, zaintza lan bat uztea ez da askatasuna bakarrik emango dizun zerbait, agian zaintza lanari lotuta –adibidez, Noraren kasuan– badago adiskidetasun bat eta harreman oso berezi bat. Beraz, ez nuen nahi karga bakarrik izatea. Uste dut pelikulan badagoela beste alde hori ere, aitona “gotorlekua” da Norarentzat.

Behin bere bidea egitea erabakitzen duenean, Nora oso ausarta da: bueltatu egiten da eta ez du ihes egiten, hartu dituen erabakiak komentatu egiten ditu. Lehen aldia da ez duela baimenik eskatzen. Eta bueltatze horretan, familiaren egituren aldaketa eragiten du, elkarriz-

keta xume batekin. Bi eszena dira, baina dena aldatzen dute, eta orekatu egiten da familia horretan bakoitzak duen lekua. Pelikularen hasieran, behintzat, ez dago oso orekatuta, ez zaintza lanak, ez beste ezer.

Merik, Noraren lagunak, bikotea eta seme-alabak ditu, eredu tradizionalak “familia ideala” deritzona. Baina ez da zorionsua. Zergatik nahi du Norak bizitza hori kosta ahala kosta?

Uste dut hori “arrakastaren kontzeptua” dela. Zer diren gizarte honetan, bai mundu sortzailean zein artistikoan, familia ereduak. Badaude batzuk arrakastatsutzat jotzen direnak, eta beste batzuekin badirudi ez duzula arrakasta lortu. Nora hasieran kanpora begira dagoenez, gailentzen den arrakasta sozialaren ikuspegia dauka, nahiz eta bere ekintzetan beste bide bat hartzen duen beti. Pelikula horren inguruko gogoeta da. Ez dakit “arrakasta” ote den hitza, baina bada “zer den egin behar duzuna eta zer den egin



nahi duzuna” horren inguruko hausnar-keta. Hor dago Noraren gatazka. Pelikula arrakasta pertsonalaren bilaketa da, eta Norak esanahi berria ematen dio arrakasta horri.

Niretzat hor dago pelikularen zatirik garrantzitsuena, bihotza edo arima: nola emakumeok aukerak ematen dizkiogun –edo ez– gure buruari, edo zenbat aukera ditugun gure buruari aukerak emateko, erabakitzeko zer egin nahi dugun, baina geure neurrira. Esango nuke guretzat ez dela erraza, gizartea ez dagoelako prest guk gure buruari hori galdetzeko. Ohitura falta horren ondorioz, geure buruei galdera horiek egiteko aukera daukagunean, beldurra ematen digu. Agian konturatzen gara beste leku batean egon nahi dugula, baina hor ausardia behar da, eta ez digute erakutsi ausartak izaten. Orduan, nik uste, Noraren bidaian badago emakume askoren bidaia: “Non gaude eta nora goaz?” galderatik abiatzen dena.

Filmean amaren papera oso argi zehaztuta dago.

Pelikulako ama-alaben arteko harreman horietan islatzen da zaila egiten zaigula bata bestea ulertzea, emakume bezala bizi izan ditugun garai ezberdinengatik. Belaunaldi bakoitzeko kideok aukera desberdinak izan ditugu egin nahi izan duguna egin ahal izateko.

Pelikulan bi elkarrizketa garrantzitsu falta dira. Alde batetik, Loliri [Noraren ama] galdetzea: “Zuk nora joan nahi duzu? Nora joan nahi zenuen eta ez zara joan?”. Eta bestetik, Mari Feliri galdetzea: “Zergatik zaude hemen, eta zein da horrek izan duen eragina zure bizitzan?”. Gure amengana joango bagina galdetuz zer izan nahi duten eta non dauden, eta zer utzi zuten egin gabe gu munduan egoteagatik... Zauri eta distantzia asko geratuko lirateke agerian. Uste dut ama-alabok berdinak garela, baina garaia elkar ez ulertzeko espazioa sortzen duela.

Pelikulan, Hego Euskal Herria, Ipar Euskal Herria eta Argentina –kanpora joandakoen euskal lurraldeanahastan dituzu. Zergatik aukeraketa hori?

Euskal Herria bere osotasunean irudikatu nahi nuen. Norak bidaia hasten duenean, galtzeko beharra dauka, bere buruari aukera bat eman eta bere lekua aurkitzekoa. Baina horretarako galdutuz egin behar da. Hor aurkitu nuen bidaia

egiteko aukera, munduko beste puntara edo hurbilera. Eta iruditzen zitzaidan gertuko pertsona bat galtzen duzunean, agian munduaren beste puntara joatea ez dela erabakirik egokiena. Horregatik erabaki nuen Nora euskararen lurraldean galdutuz zela, euskarri bat behar zuelako, nahiz eta etxean egon ez, etxean egongo balitz bezala sentitzeko.

Gero, Argentinako zatia etorri zen. Nire partetik bazegoen borondate bat pelikula koloretsua egiteko, baina ez soilik kolore aldetik, baizik eta zentzu guztietan: hizkuntza aldetik, aniztasun aldetik... Orduan hasi nintzen pentsatzen nor izan zitekeen Noraren aitona, eta Hèctor Alterio pila bat miresten dudanez, prentsatu nuen: “Zergatik ez aitita argentinatar bat?”. Gainera, Argentinarekin eta Hego Amerikarekin daukagun historia kontuan hartuta, uste dut interesgarria dela familia horrela osatzea, testuinguru horretan Nora nor den azaltzeko.

EITBko Ahoz Aho programan eskainitako elkarrizketa batean esan zenuen ohikoan ez dela emakumerik egoten euskarazko zinemagintzan. Zergatik?

Esango nuke ez dela bakarrik euskarazko zineman, baizik euskarazko fikzioa egiten duten ikus-entzunezkoetan orokorrean. Urte hauetan egin diren EITBko telesailak ikusi besterik ez dago: zero emakume egon dira zuzendaritza lanetan, eta esango nuke zortzi-edo egin direla. Aurten *Nora* eta *Erlauntza* egon dira, baina emakume batek zuzendutako euskarazko aurreko fikzioa, gogoan daukadana, *Amaren Eskuak* da, eta ez da duela bi urteko lana. Gogoeta egin beharko genuke: sustatzen ari gara euskarazko zinema, baina zeinek egingakoa? Nik arretea berezia jarriko nuke puntu batean: zer ari da gertatzen telebista publikoak banatzen duen diruarekin? Esango nuke Eusko Jaurlaritzak badiuela erabakiak hartuak, emakume bat euskarazko film bat egitera ausartzen bada, hura babesteko. Telebista publikoaren alorrean ere badago borondate bat, baina gero, errealitatean, diru publiko banatzeko orduan hartzen dituzten erabakien berrikuspenean egitea falta dela uste dut.

Ikuspegia, beraz, bakarra da, eta hori oso arriskutsua da atzetik datozen emakumeentzako eta orain gaudenontzako. Baina arrisku larria da hizkuntzarentzako ere. Esango nuke erabaki nuela



nire lehenengo pelikula euskaraz ez egitea, ez nituelako bi zailtasun aldi berean gaintu nahi: emakume zuzendari izatearena eta euskara hizkuntza gutxitu bezala defendatzearena. Uste dut bigarren pelikulan ausardia izan dudala bi horiei aurre egiteko. Baina bigarren film hau egitea zaila izan da bi arrazoi horiengatik, eta ez dut lortu euskal kulturatik –erakundeez mintzo naiz, ez publikoaz– babes nahikorik; horrek eragozten dit baieztazea nire hirugarren pelikula euskaraz izango dela.

Noraren gaztelarazko bertsioa eman dute zinema batzuetan, eta bikoiztuta dagoela esan gabe proiektatu dute.

Nora bikoizteko erabakia hartu genuen Televisión Española-rekin eta A Contracorriente banatzailearekin bilera egin eta gero. Espainiako telebistaren diru laguntza bat lortzeko, esan ziguten filma bikoiztu egin behar genuela –ez dakigu derrigortasun hori geneukan ala ez, baina hori uste genuen– eta kontratu bat sinatu behar genuela. Guk hitzarmena A Contracorriente Televisión Española-rekin sina zezan baimendu genuen orduan, baina estreinaldiaren data oso gertu genuenez, ezin genuen kontratua sinatu arte itxaron bikoizketa egiteko.

Bikoizketa horren atzean pelikula zinema areto gehiagotara heltzeko aukera dago. Euskarazkoa bada bakarrik, aretoen %15era helduko da; bikoizketarekin, agian %50era. Beraz, bikoiztea erabaki genuen.



Nora filmeko fotogramak.



Halere, ez duzue espero zenuten zabalkundea lortu.

Banatzailleek euskarazko film baten aldeko apustua egin behar dute, eta gertatzen dena da apustu hori txikia dela. Gainera, estatu mailako aretoetan pelikularen jatorrizko bertsioa ematea erabakitzen dute. Beraz, bikoizketa hori egin izanak pelikula ez du Espainiako beste zirkuituetara hedatu. Bestalde, gure harridurararako, gaztelarazko bertsioa erabili dutenak Euskal Herriko areto batzuk izan dira: Multicines eta Getxo, ez dakit besterik egon den.

Hortik sortu da eztabaida. Azken finean, publikoaren beharra egon da, askok nahiago zuelako pelikula ez ikusi, azpidatziak irakurtzen ibili baino. Agian herriaren errepresentazioa da, herrian dagoen hizkuntzaren erabilerarena, eta, zentzu horretan, ez dakit hasieratik guk jarri behar ote genituen mugak zinema

bakoitzean erabili beharreko hizkuntzari dagokionez. Benetan, guztiz harrituta nago gertatu denarekin. Pelikula ez dugu horretarako erreminta bezala hartu, eta agian hori egin behar genuen.

Euskarazko pelikula bat justifikatu egin behar da?

Hemen gaztelarazko pelikula bat gaztelaraz ikustera bazoaz, inork ez du ezer esaten; euskarazko pelikula bat azaldu egin behar den zerbait da. Guk bikoiztu izana bada, zentzu batean, azalpenak ematea. Baina euskarazko industria eta euskarazko kultura eraiki nahi baditugu, eta bikoizketarik gabe, euskararen normalizazioan lan egitea bada nahi duguna, erakundeetatik eta euskararen zabalkundetik esan beharko genuke: zenbat da horrelako pelikula baten batez bestekoa, 50 kopia? Zer egin dezakegu euskarazko pelikula batek bere gaztelarazko homo-

logoek beste kopia izan ditzan? Bestela, euskara hemen geldituko da. Euskal Herriari gero eta gehiago ari gara jasotzen beste hizkuntza batzuetan egindako lanak: katalanezkoak, galegozko pelikulak eta telesailak... Baina euskara, oraindik, ez da hasi liga horretan jokatzen.

Administrazioaren laguntza gehiago dute gainontzekoek?

Ez dakit hori den, edo erabaki bat den. Adibidez, katalanarekin, esan dute: hemen dago, eta ez da hizkuntza gutxitua. Norberak sinetsi behar du, herri bezala. Hemen baditugu zailtasunak hori sinesteko. Eta nik *Norarekin* agian horregatik hartu ditut erabaki batzuk, pentsatu izan dudalako: "Euskara ez da helduko". Baina gero, mundutik bidaiatu duen bertsio bakarra euskarazkoa izan da: Miamin euskaraz ikusi dute, Manchesterren, Nantesen... ●

hamaika
AKTUALITATEA · EUSKAL HERRIA ZUZENEAN · KULTURA DIGITALA · BIZIMUSIKA

ZUZENEAN / NAHIERAN

#NikHamaika

hamaika.eus